

• ASTERKO GAIA •

Ustelkeria erakunde publikoetan

DANI BLANCO

Apirilean Guggenheim museoan agerian geratutako funts-desbideratze larriak mahai gainera ekarri ditu erakunde publikoen mendekoak diren enpresa, elkarte edo fundazioetan atzemandako beste hainbat ustelkeria kasu. Batzuk, gainera, argitu gabe daude oraindik. Are gehiago, oraindik estalita dauden baina azaldu litezkeen beste kasuen inguruko duda-muda handiak sortu dira.

DANIEL UDALAITZ

2008ko uztailaren 6a

ARGIA

5

Guggenheimeko desfalkoak erbia altxatu du

EGIA DA USTELKERIA POLITIKOA ez dela orokorra Euskal Herrian. Baina Guggenheimeko funts-desbideratzearen ondoren EAJko Jose Antonio Rubalkaba parlamentariak baieztatutakoa ere ez da egia: “Euskadin ez dago ustelkeria politikorik. Jokabide egokia izan ez duten pertsonen kasu puntualak besterik ez dauzkagu”. Eta ez da egia Iñaki Azkuna Bilboko alkateak esandakoa ere, lapur banaka batzuk besterik ez direla, alegia; edo mintzagai dugun euskal museoko zuzendari nagusiak, Juan Ignacio Vidartek, esandakoa: “Ardi beltza” dela, besterik ez. Honakoak dira ondoren aipatuko ditugun kasurik esanguratsu eta berrienak: Guggenheim, Bizkaiko Foru Ogasuna eta Irungo Foru Ogasuna, Jon Jauregi afera, Sondikako Aireportuko zuzendariaren ondarea, Gasteizko Udaleko irregulartasun urbanistikoak, Getariako Balentziaga Museoa, Laguardia eta Bastidako golf zelaia, Gizarte Laguntzako Oinarritzako Errenta, eta abar.

Kasu horiek euskal erakunde publikoekin zerikusia duten enpresa, elkarte eta fundazioei eragiten diete eta batzuetan neurri handiagoan, bestetan txikiagoan, baita EAJ, PP eta PSOEko politikariei ere. Akaso ustelkeria interpretatzeko modu horrekin, alegia, ustelkeria indibidualizatu eta pertsona oso konkritu batzuei egotziz, ustelkeriaren testuingurua ezkutatu nahi da. Testuinguru horretan erantzule politikoak azaltzen dira eta haiei eragiten die, ez direlako zorrotzak izaten kontrol neurri estuak eskatzeko garaian eta gehiegizko konfiantza izaten dutelako karguak betetzeko beraiek jarritako “konfiantzazko pertsonengan”.

Aspaldian ez zen ustelkeria kasurik azaleratu. Ahaztuta geratu da 1980ko hamarkadan Osakidetzan izandako eskandalua. Garai hartan, euskal nazionalismoak hasieran egin

zuen bezala baina modu baldarragoan eta delitua eginez, agintariak gertuko pertsona ugari sartu nahi izan zituzten administrazioan. Gogoratu makina txanponjaleen garai bertsuko kasua ere, EAEko finantzaketa bideekin lotu zen hura. Eta guztien gainetik, eskandalurik handiena izan zelako, nola ahaztu Gabriel Urralburu eta Javier Otano Nafarroako lehendakari ohiak eta Aragoiko Jorge Esparza eta Luis Roldán tartean izan zituen kasua. 1987 eta 1991. urteen artean obra publikoak esleitzearren truke eraikuntzako enpresei komisioak kobratzeagatik etengabe-ko funtzionario eroskeria egotzi zitzairen eta espetxera bidali zituzten.

Nola ahaztu Urralburu eta Otano Nafarroako lehendakari ohiak eta Aragoiko Espartza eta Roldán tartean izan zituen kasua?

Guggenheim, kontrol eza

Joan den apirilaren ezagutu genuen Bilboko Guggenheim museoko funts-desbideratzea. Kudeatzaile administratibo nahiz politikoen konfiantzazko gizona zen finantza zuzendariak, Roberto Cearsolok, aitortu zuen 1998az geroztik ia milioi erdi (486.979) euroz jabetu dela. Desbideratzearen berri izan zenean, 251.900 euroko txkeka aurkeztu eta gainontzeko guztia itzultzeko konpromisoa hartu zuen. Jabetzan hartutako zenbatekoa artelanak erosteko sortutako Tenedora elkartearena eta eraikina- ren jabearena da. Euskal pinakotekatik ziurtatu dute BBK-k eman zizkiola finantza zuzendariari kontuen gakoak eta hark bere karguaz baliatuz lortu zituela, Zuzendaritza Nagusiaren baimenik gabe.

Begi-bistakoa da kontrol ezak erraztu zuela finantza zuzendaria diruaz bidegabe jabetzea. Izan ere, sortu zenetik euskal erakundeetatik 90 milioi euro jaso dituen Tenedora elkarteari –artelanak eskuratzeko eman zaio diru hori– kanpoko kontu ikuskaritzak egin zitzaizkion 1995, 1996 eta 1997. urtee-

tan. Baina ikuskaritzak egiteari utzi zitzaion eta 2007ko ekitaldira arte, hain zuzen ere dibisen erosketan galerak antzeman zirela eta oposizioa presioa egiten hasi arte, ez zen berriz konturik ikuskatu. Epaitegian salutatuko gertakariak delituak izan litezke: bidegabe jabetzea eta merkataritzako dokumentua faltsutzea. Delitu larriak izan daitezke, gainera, behin eta berriz egin direlako. Akusatuaren alde egin edo zigorra arindu dezake lapurtutako diru-kopuruaren zati bat itzuli izanak. Momentuz, finantza zuzendaria kargutik kentzea besterik ez da gertatu; kudeatzaile administratibo edo politiko bakar batek ere ez du dimisiorik eman, nahiz eta beraiek izendatzen dituzten konfiantza handieneko kargu horien lana zaintzeko ardura-dun nagusiak.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) ziurtatu du Guggenheim museoko iruzur eta irregulartasunak saihestu ahal izango zirela 2001 eta 2005. urteetan emandako aholkuak kontuan hartu izan balira. Museoko zuzendari nagusi Juan Ignacio Vidartek ordea, ezetz esan du, kontuak manipulatuta zeudela argudiatuz. Nolanahi, justizia epaitegien esku dago iruzurra argitzea. Horretarako, joan den maiatzean hasi ziren instrukziozko Bilboko epaitegi batean deklaritzen iruzurra egin zuen finantza zuzendaria eta zuzendari nagusia. Bitxia bada ere, bere burua erruduntzat jotakoak libre eta kaute-lazko inongo neurririk gabe jarraitu zuen epaitegian deklarazioa egin ondoren.

Akaso ustelkeria indibidualizatu eta pertsona oso konkretu batzuei egotziz, ustelkeriaren testuingurua ezkutatu nahi da

EGUNGO PUNTU BELTZAK ERAKUNDE PUBLIKOETAN



- Guggenheim
- Bizkaiko Foru Ogasuna
- Irungo Foru Ogasuna
- Sondikako aireportua
- Gasteizko Udala
- Balentziaga Museoa
- Laguardiako golf zelaia
- Bastidako golf zelaia

Ogasunak eta Gasteizko Udala. Erantzukizun politikoak?

Ustelkeriak Bizkaia eta Gipuzkoako aldundiak ere zipriztindu ditu. Bizkaian oraindik irekita jarraitzen du garai hartan ikuskari

burua zen Juan Ramón Ibarraren aurka 2003an hasitako instrukzio judizialak. Ustelkeriaren Aurkako Fiskaltzak bere aurkako kereila jarri zuen ustez prebarikazioa eta dokumentu publikoak faltsutu izanaren delituak egiteagatik. Ustez sistema informatikoa manipulatu izanaz dago akusatuta, ehun bat lagunez osatutako zergadun babestuen zerrenda bat ikuskatzaileek ez aurkitzeko edo ikuskaritza paraleloak egitea saihesteko asmoz. Dirudienez, prozesatuak babes ekintza hori ez zuen beretzat etekinik lortzeko erabili. Babestutako zenbait enpresek euskal nazionalismoaren kutsua badute ere, orain arte ezin izan da lotura gar-

Iruzur zantzuak gizarte laguntzako soldatetan

Gure erakunde publikoek banatzen duten Gizarte Laguntzako Soldata edo Oinarrizko Errenta delakoaren inguruan ere bada ustelkeria edo maltzurkeria usainik. EAEn Gizarte Laguntzako Soldata Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak kudeatzen du eta udalak eta foru aldundiak arduratzen dira emandako laguntzak kontrolatzeaz. Gaur egun, 2008an, hilean 600 eurokoa den Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren (LGS) %88aren parekoa da Oinarrizko Errenta. Errenta hori gehienez 875 eurora arte igo daiteke, bost kidez osatutako familien kasuan. 2007. urtean 29.585 pertsonak jaso zuten Gizarte Laguntzako Soldata hau eta 2006an 27.521ek. Aurten aurrekontua 189,22 milioi euroraino iritsi da; 2007. urtean 168 milioi eurokoa izan zen. Etor-kinak dira laguntza hau jasotzen dutenen %30. Hauexek dira errenta jasotzen dutenen batez besteko profilak: bikotekiderik gabe adingabeko seme-alabak zaindu behar dituzten emakumezkoak, etorkinak, eta pentsioa

osatzeko Oinarrizko Errenta erabiltzen duten adineko pertsonak.

Joseba Azkarraga buru duen sailak egindako ikerketaren arabera, Gizarte Laguntzako Soldata edo Oinarrizko Errenta jasotzen dutenen %15i antzeman zaizkie iruzur zantzuak. Zenbait kasutan, iruzurgileek dirua kobratzen duten bitartean lanean jarraitzen dute Oinarrizko Errenta jasotzeko ezarrita dagoena baino diru sarrera edo soldata handiagoarekin; beste batzuek, berriz, lan eskaintzei uko egiten diete etxetik atera gabe diru sarrerak izaten jarraitzeko. Azkarraga sailburuak onartu du gobernuaren aurrekontuetatik datozen laguntzak materialki banatzeaz arduratzen diren "foru aldundietako eta, batez ere udaletako kontrol mekanismoek huts egin dutela". Eta zehaztasun gehiago emateko erreparorik gabe, udaletako taldeei erreferentzi garbia eginez, zera gaineratu du: "Datuek erakusten dute zenbait oinarrizko gizarte zerbitzuek ez dutela behar bezalako jarraipen eta kontrol lanik egiten".

Dimisioa ez dago modan

Orain arte Euskal Herrian argitara emandako iruzur kasu hauetan errudunei bakarrik egotzi zaizkie zigor erantzukizunak —edo abian da horretarako prozesua—: maula, dokumentu faltsutzea, bidegabe jabetzea edo prebarikazioa egin duten pertsonen. Dimisioez edo berehalako kargugabetzeez gain, ustelkeria kasuetan inplikaturako pertsonak prozesu judizialean murgilduta daude eta, zenbait kasutan gainera, dagoeneko badago epai irmorik, baina epai horien guztien aurkako errekursoak jarri dituzte auzitegi nagusietan. Ez dugu ezagu-

tzen kasu horien erantzukizun politikoa bere gain hartu duen eta horregatik dimititu duen inor. Nola ba, konfiantza guztia emanez erakunde edo enpresa horien buru izendatu zituztenak unean uneko politikariak izan baziren? Konfiantza hainbestekoa izanik, ez zuten kontrol eta segurtasun neurri zorrotzak aplikatzeko beharrik ikusi. Eta kontrol zorrotz eta gogorrik ezak ekarri ditu aipaturako iruzur kasuak. Politikariek, hortaz, dagokien erantzukizuna hartu behar dute beregain. Eta dimititu egin behar dute.

birik egin. Jatorri oso desberdineko enpresak azaltzen dira aipaturako zerrendan. Ibarra kargutik kendu eta auzipetu egin zuten. Ogasuneko zuzendari nagusia, ordea, Javier Muguruza, ikertu eta kargutik kendu zuten, baina auzipetu gabe.

Gertatu berria izateagatik ezagunagoa dugu Irungo Foru Ogasuneko kasua. 1989. eta 2004. urteen artean 8,1 milioi euroko iruzurra egin zen bertan. Inputatu nagusia, Jose Maria Bravo, bidegabe 1.638.552 euroz jabetzearen akusaziopean, espetxean dago. Alabaina, herri akusazioak bestelako salaketa egin du: “Aldundian antolatu eta planifikaturako iruzurra”. Bestalde, ziurtatu eta salatu du elkarrekin ados jarrita izendatu zirela Ogasuneko karguak eta kargu horiek iruzurra erraztu eta kontrol sistemek huts egitea eragin dutela. Kasu honek justiziaren eskuetan jarraitzen du, baina oraindik ez zaio inori erantzukizun politikorik egotzi. Hori dela-eta, irekitako zigor arloko prozeduran herri akusazio izateari utzi dio LABek, eta administrazioarekiko auzien bideari ekin dio, erantzukizun politikoak eskatzeko.

Ustelkeria politikoaren beste kasu batek ere eragina izan du Aldundi horretan bertan, Jon Jauregik, bere ondareari buruzko filtrazioen ondorioz, uko egin behar izan baitzion ahaldun nagusirako hautagai izateari. Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ezagutarazi du filtrazio hori (deklaratu gabeko zenbait etxebizitzari buruzko datuak) Gonzalez Txabarriri lotutako aurreko Ogasun Departamentuaren zuzendaritzatik atera zela, foru eta udal hauteskundeetarako kanpaina bete-betean zela, EAJren barne borroken ondorioz.

Gasteizko Udala ere ez zen onik atera ustelkeriaren zipriztinetatik PPko Alfonso Alonso alkatearen eta Hirigintzako Jorge Ibarrondo zinegotziaren kudeaketarekin. Oraindik irekita jarraitzen du bi txalet-urbanizaziotan egindako ustezko irregulartasunak argitzeko ikerketak. Nolanahi ere, PPko politikariek ukatu egiten dituzte irregulartasun horiek.

Sondika eta Balentziaga, arropa opari

Balentziaga Fundazioan eta Eusko Jaurlaritzak, Getariako Udalak eta Gipuzkoako Aldundiak osatzen duten Berroeta Aldamar Elkarrekin ere irregulartasun zantzuak daude lehengo urteaz geroztik. Mariano Camio EAJko Getariako alkate eta museoko kudeatzaile izandakoa judizialki ikertzen ari dira, dirua bidegabe erabili, dokumentuak faltsutu eta administrazio desleiala egin ote duen jakiteko; izan ere, justifikatu gabeko proiektuen fakturak ordaindu zitzaizkion enpresa bati. Fakturatutako gehiegizko zenbatekoa gutxienez 439.905 eurokoa da. Gainera, Eusko Jaurlaritzak eskuratu eta fundazioan gordetako Balentziaga jostunaren hainbat jantzi desagertu egin dira edo Getariako EAJko kargudunen emazteak oparitan jaso dituzte.

Bestalde, Espainiako Estatuko AENA erakunde publikoarentzat lan egin eta Sondikako Aireportuko zuzendari izandako Segismundo Lopez-Santacruzi bederatzi urteko espetxe zigorra ezarri diote aireportu bizkaitarra kudeatzen zuen garaian (1997tik 2001era) bidegabeko erabilera eta funtzionarioak erosi izana egotzita. Lanak nahi bezala esleitu, egin gabeko lanak ordaindu eta gutxienez 948.000 euro jaso zituen

Jose Maria Bravo, Irungo Foru Ogasuneko zuzendari ohia abokatuarekin, iazko udan kartzelan sartu aurretik.



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

komisiotan. Beste bi auzi ditu argitzeke: dokumentu pribatua faltsutzeagatik delitu bat Iruñean, eta Getxoko pisu baten salmentan ondasunak ostentzeagatik beste bat Bilbon.

Politikari erostezinak ere badaude

Euskal politikarien artean, arlo guztietan gertatzen den bezala, denetarik dago; badira erostezinak direnak ere. Esate baterako, hortxe dugu Bastidako Udaleko Gregorio Lopez EAko zinegotziaren orain dela gutxiko kasua. Bastidan golf zela bat jarri eta ehunka etxebizitza eraikitzeko plana zegoen. EAko zinegotziak, ordea, salatu zuen enpresaburu errioxar bat, Gregorio O., bere botoa erosten saiatu zela golfaren ondoan aurreikusita zeuden 120 etxebizitza eraiki beharrean 320 eraikitzeko. Enpresaburu errioxar horrek 90.000 euro eskaini zizkion proiektatutakoak baino etxebizitza gehiago eraikitzeko PPK egin zuen proposamenaren aldeko botoa eman zezan. Bere botoa erabakigarria zen, EAJ eta PPren arteko launako berdinketa apurtzen baitzuen, baina azkenean ez zuen aldeko botorik eman.

Zinegotzi abertzalearen salaketaren ondorioz, eginbide judizialak hasi ziren eta berehala beste bi pertsona auzipetu zituzten, mahastizaintza eta ardogintza sektoreko bi enpresaburu hain zuzen ere; bata Logroñokoa (España) eta Arabako Errioxakoa bestea. Ministerio



Guggenheim, geroz eta ohikoagoak diruditen eskandaluen azken adibidea.

Publikoak irregulartasun zantzuak ikusi ditu bai Laguardiako proiektuaren plangintzan eta bai Bastidakoan. Bi kasuek dute zerikusia lursailen salerosketako hainbat eragiketetan informazio pribilegiatua erabiltzearekin.

Halere, azken boladan izandako ustelkeria kasuek agerian utzi dute “kasu puntualak”, “lapur bakan batzuk” edo “ardi beltzak” baino zerbait gehiago dagoela. Zein izango da hurrengo eskandalua? ■

euskarazko komunikazioa eta hizkuntza gutxituak masterra

aurp-matrikula

Uztailaren 18ra arte

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean

harenanptarako

94 601 3006

simon.pena@ehu.es

txema.ramirezdelapiscina@ehu.es

2008/09 ikastaldia

euskarazko komunikazioa eta hizkuntza gutxituak

unibertsitate masterra

<http://www.euskarazko-komunikazioa.info>

babesleak

EUROPA JAKINAREN ETXEA

Kultura Gaiak

Hizkuntza Politikaren Gaitasunak

sustatzaileak

antolatzailea

ERAKUNDEA

ERAKUNDEA